

'Amerikanuak' liburuaren 40. urteurrenaren harira, jardunaldi berezia antolatu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak

2015/11/30

William Douglasssek eta Jon Bilbaok 1975ean idatzitako *Amerikanuak* liburu mugariaren 40. urteurrenaren harira, jardunaldi berezia antolatu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak **abenduaren 9an: "Amerikanuak 40 urte. Vascos: imágenes y representaciones"**. Topaketan **parte hartuko dute William Douglas idazleak berak**, unibertsitate desberdinetako ikerlariak eta diasporako ordezkariak. Ekitaldia irekia izango da, eta Aretxabaletako campusean egingo da.

Jardunaldiak bi helburu bete nahi ditu, batetik, euskal diasporari tokia ematea gure artean, eta, bestetik, *Amerikanuak* lanaren ekarpena goraiatzea. *Amerikanuak* liburuak biltzen ditu euskal diasporaren historia eta istorioak eta saihetsezineko erreferentzia da ulertu nahi bada Amerikako kontinentean euskal diasporak izan duen ibilbidea.


William Douglass idazle eta antropologoa AEBtatik etorriko da; elkarrizketa egingo diote bere ibilbidearen eta lanen inguruan. Ekarrizketa egiten Miel A. Elostundo ere izango da, *William A. Douglass: Mr. Basque* lanaren egilea. Marcelino Irianni Argentinako diasporako ordezkariak ere parte hartuko du, online. Horiez gain, EHUko zenbait ikerlarik parte hartuko dute topaketan, hala nola Jon Ander Ramos, Amaia Iraizoz eta Edurne Arostegi doktoregaiak eta Oscar Alvarez eta David Rio irakasleak. Ekitaldia borobilduko da bertso-elkarrizketan saio batekin. ([Egitarau osoa PDF formatuan](#)).

Abenduaren 9koa jardunaldia berezia izango da, izan ere, *Mr. Basque* bera gurean izateaz gain, 2015 urtean unibertsitate desberdinetan egin diren mintegi eta ekitaldiei bukaera emango die Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko ekitaldiak.

Topaketa goizez izango, Aretxabaletako campuseko areto nagusian eta zabalik dago interesa duen edonorentzat.

Egitaraua

- **09:15-09:30** Agurra. Asier Vallejo (Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendaria-Eusko Jaurlaritza); Larraitz Ariznabarreta (MONDRAGON UNIBERTSITATEA); Monika Madinabeitia (MONDRAGON UNIBERTSITATEA).
- **09:30-11:00** Aurkezpenak:
 - Jon Ander Ramos (EHU): "Al estilo vascongado. Las celebraciones vascas de La Habana a través de la prensa".
 - Amaia Iraizoz (UNR/EHU): "La prensa vasco-americana del siglo XIX en California y el sentimiento anti Chino como estrategia para la integración en la sociedad americana".
 - Edurne Arostegui (EHU): "Del 'bosco' al 'Basque': Estereotipos vascos en la literatura del oeste americano".
- **11:00-11:30** Kafea.
- **11:30-12:15** William Douglass: Mr. Basque-ri elkarrizketa (elkarrizketa egiten Oscar Alvarez eta Miel A. Elostundo).
- **12:30-13:30** "Bertso-elkarrizketan" saioa:
 - Oscar Alvarez.
 - David Rio.
 - Marcelino Iriani (Argentinatik *online*).
 - William Douglass.



"Amerikanuak" liburuak 40 urte bete ditu.